

2019-2020 IKASLE OFIZIALAK

Ikasturtea hasterakoan, Eskolaren funtzionamendurako arau batzuk aurkeztu nahi ditugu. Honekin batera barkamena eskatu nahi dugu sor daitezkeen aldaketa txikiengatik.

1. Klasera joatea derrigorrezkoa da. Halere, ikasturte hasieratik justifikatu gabeko **14 hutsegite** onartzen dira (7 hutsegite ikastaro erdipresentzialeko ikasleentzat), hau da, saioen %25a. Hutsegite kopuru hori gainditu ondoren, ikasleak ofizialtasuna galduko du. **Ofizialtasuna galtzeak** honako ondorioak dakartzkio:

- Ezin da klasera aurrerantzean joan. Ikastaro erdipresentzialeko ikasleak Moodle plataformarako sarbiderik gabe ere geldituko dira.
- Ezin da multimedia gela, ezta liburutegiko zerbitzuak ere erabili.
- Hurrengo ikasturterako ikasle ofiziala izaten jarraitzeko matrikula plaza erretserbarako eskubidea galtzen du.
- A1eko eta B2.1eko ikasleek etengabeko ebaluazioarako eskubidea galtzen dute.
- **Bi deialdietan azterketara** bere taldeko ikasle ofizialekin batera **aurkeztu daiteke**.

18 urtetik gorako ikasleen ez etortzeen justifikazioa lan munduan erabiltzen diren agiriaren bidez egin behar da.

Adin txikiko ikasleen ez etortzeen justifikazioa beraien gurasoek edo tutoreek bete behar dute.

Ez etortzeen justifikazioa dagokien hilabetea bukatu baino lehen eman behar zaio irakasleari.

Onartutako hutsegiteen kopuru erdira iristen diren ikasleei eta kopuru osoa gainditzen dutenei honen berri emango zaie.

2. Ikasleak bere matrikula ofizialari uko egiteko aukera dauka abenduaren 31 arte. Egun horretatik aurrera, gaixotasun larriak, istripu larriak eta Zuzendaritza Taldeak eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartzen dituzten kasuak besterik ez dira onartuko (etxebizitza edo lan/ikasketa aldaketa, adibidez). **Uko egiteak** zera suposatzen du:

- Aurrerantzean ez da Eskolako ikaslea izango.
- Ez da matrikularen zenbatekoa itzuliko.
- Ikasle ofizial moduko deialdiek ez dute aurrera egiten.
- Nahi izanez gero, ikasle libre moduan matrikulatzeko aukera du.

3. Ordutegia aldatu nahi duten ikasleek aldaketa gure web gunearen bitartez (*on line* Idazkaritza) edo Idazkaritzan eskatuko dute. Idazkaritzak aldaketaren berri eman arte, matrikulatu ziren taldearekin klasera joaten jarraitu beharko dute.

4. Aurrez aurreko modalitateko ikasleak ezin izango dira matrikulatu kurtso berean birritan baino gehiagotan. Salbuespen gisa, dagokion mintegiak proposaturik eta ikasleak hala eskaturik, Zuzendariak baimendu egin dezake hirugarrenez matrikulatzea, Oinarrizko mailarako muga lau urtekoa delarik; Tarteko mailarako (B1 eta B2), seikoa guztira; eta hirukoa, maila Aurreraturako (C1).

5. Irakasleak klasera huts egiten duenean Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak ez du beti lehenengo egunerako ordezkoa bidaltzen. Kasu hauetan Eskola SMS baten bidez ikasleari berri ematen saiatzen da. Eskolak ordezkoa zein egunetan etorriko den esaten ez badu, ikaslearen ardurapean egongo da informazioa lortzeko Ikastetxearekin harremanetan jartzea.

18 urtetik beherakoen kasuan, SMSa bere guraso edo tutoreei ere bidaliko zaie. Irakaslearen ustekabeko ez egotea gertatuz gero, ikasleak etxera itzuli beharko luke, zaintza egiten irakaslerik ez dagoelako, guztiak klasean baitaude.

6. Ikasleak bizikidetzara errespetatuko ditu (201/2008 *DEKRETUA*, abenduaren 2koa, *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa*).

7. Eskolarekin harremanetan jartzeko:

Telefono:	943 69 75 60
e-mail:	eoitolosa@gmail.com
Web:	www.eoitolosaheo.hezkuntza.net
Ingelesa Mintegia:	tolosain@gmail.com
Frantsesa Mintegia:	tolosafran@gmail.com

Idazkaritza: ikasturtean zehar jende aurreko ordutegia	
Astelehenetik ostegunera:	09:30 – 13:00 15:00 – 17:30
Ostiraletan:	09:30 – 14:30

HEO honetan egiten den edozein izapide burutzeko **NANa** aurkeztu behar da.